IKER POU
BI HAMARKADA GAILURREAN

TESTU ETA ARGAZKIAK

Ioritz Gonzalez Lertxundi
(Azkoitia, 1980)

Kirol eskalada zale amorratua, 25 urte baino gehiagoko esperientziarekin. Eskaladaren inguruan ikerketan aritu izan da. Pyrenaicako erredakzioko kidea da.

Pou anaiak, mendizale eta esakaladazaleen artean aski ezagunak. Hainbat eta hainbat eskalada eta hormatan ikusi izan ditugu gasteiztarrak azken urteetan, bai zailtasunaren mailak gainditzen, bai eta bide berriak irekitzen ere. Bi anaiek goi-mailako taldea osatzen dute arlo ezberdinetan moldatzeko, expedizioetan edo kirol eskaladan besteak beste. Horma handietan ere zailtasun erreferentzia izan diren irekierak sinatu izan dituzte, Picu Urriellu edo Bulnesko Naranjon eginikoak esaterako. Beraien kirol ibilbide oparoko proiektu ezagunenetariko batzuk "7 horma 7 kontinente", "Orbayu" edo "Panaroma" izan daitezke, batzuk aipatzearren. Eskalatzaile nekaezin hauen igoeren zerrendak luze joko liguke, eta interesa duenak eskuragarri du jardueren informazio guztia beraien web orrian; http://hermanospou.com/eu/.

Gaurkoan, anai gazteenaren kirol eskalada ibilbidean sakonduko dugu. Honetarako arrazoi nagusia, bere goi-mailako lehenengo aztarnen urtemuga da. Bi hamarkada dira jada Frankenjuran (Alemania) dagoen "*Action directe*" bide ezaguna egitea lortu zuenetik. Urteetan zehar bide honek munduko zailtasunaren muga ezarri zuen, eta Ikerrek munduko hirugarren igoera sinatu zuen, benetan balentria gogoangarria. Gainera, 23 urte zituen bidea kateatzea lortu zuenean.

> Ikerrek, hogei urtean zehar, hainbat proiektu, espedizio, eta abar gauzatzeaz gain, urtero gutxienez 8c+/9a edo maila altuagoko bide bat sinatu du batezbesteko

Ikerrek, mundu mailan kirol eskaladako erreferentzia diren bideak egiten ohitu gaitu azken urteotan. Ez hori bakarrik, arestian aipatu bezala, pasatu dira jada urte batzuk bere eskaladak sona handikoak izaten hasi zirenetik. Harrez gero, arlo edo jarduera ezberdinetan aritzeaz gain, punta puntako mailan jarraitzen du. Bere ibilbidean 8c+/ 9a edo maila altuagoko 20 bide baino gehiago ditu eginak. Beste era batetara esanda, hainbat espedizio,

irekiera, horma, proiektu, etab. gauzatzeaz gain, batazbesteko, urtero gutxienez goi-mailako kirol eskalada bide bat egitea erdietsi du bi hamarkadetan zehar. Ez da marka makala honelako ibilbidearekin maila gorenean jarraitzea, motibazio eta kemen berdina mantenduz. Ikerrek berak aipatu izan duen moduan, "askotan, iristea bera baino zailagoa izan daiteke maila berean mantentzea".

Pentsa daitekeen bezala, ez da erraza Pou anaiekin elkarrizketa batetarako beta izatea, denboraz ez baitira soberan ibiltzen, eta abagune zantzu bat izan dugunean ez dugu aukera alperrik galdu. Berarengan ohikoa den abegikortasun eta irribarrearekin erantzun ditu gure galderak:

Egun, zure jarduerarekin loturiko zein proiektutan zabiltza murgildurik?

Egia esan aurten bageneuzkan buruan espedizio eta alpinismo bidaia batzuk, baina oraintxe bertan Covid-19aren eraginez daukagun egoerarekin, zaila izango da 2020an zehar Europatik kanpora irtetzea. Ondorioz, proiektuak birplanteatu eta helburuak etxetik gertuago ezarri beharko ditugu. Epe luzean, baditugu buruan alpinismo kutsuko pare bat espedizio.

Kirol eskaladari dagokionez, oraintxe bertan ez dut proiektu zehatzik buruan. Egun, bederatzigarren gradu inguruan ibiliko diren proiektu berri batzuk ekipatzen ari nintzen, eta aurten bat edo beste egiten saiatzea gustatuko litzaidake. Honetaz gain, atze-

Iker "*Big men*" bidean Mallorcan, 9a+ · ARGAZKIA: JORDI CANYIGUERAL

Iker "*Artaburu*" bidean, Margalefen. Ikerren azken kirol eskaladako proposamena, 9a+ edo gehiago izan daitekeena · ARGAZKIA: JORDI CANYIGUERAL

rrian dagoen bide bat egiten saiatzea ere gustatuko litzaidake, karrera amaierako proiektu moduan...jejeje. Oraindik ez dakit joango naizen, joateko aukera badut kontatuko dizuet.

Nola uztartzen duzu goi-mailako kirol eskalada beste hainbat espedizio, horma handietako irekiera eta abarrekin?

Ez da erraza espedizioak kirol eskaladarekin uztartzea. Espedizioetatik itzultzean gehienetan oso nekaturik bueltatu ohi gara, eta gure kirol eskalada maila oso baxua izan ohi da. Honek esan nahi du gutxienez hilabete behar izaten dugula hobeto sentitzen hasteko eta kirol eskaladaren erritmo bizia lortzeko. Horma handietako eskaladekin uztartzea askoz errazagoa da. Gainera horma hauek ez badaude altuera handietan (4000m baino gutxiago) oso bateragarria izan daiteke sasoiko mantentzea.

Pou anaiak · ARGAZKIA: MATHIS DUMAS

Normalki, gehienez bi hilabete eskaintzen dizkiot kirol eskaladari modu jarraian, eta honek nire errendimendu eta progresioa mugatzen du. Badira jada urte asko kirol eskaladan bakarrik eta ehuneko ehunean ez dudala jardun, ez baitut horretarako motibaziorik. Beste gauza batzuk egin ahal izatea oso gustoko dut eta goi-mailako kirol eskaladak dedikazio handia eskatzen du. Asko gustatzen zait sasoiko egotea beste zenbait proiekturi berme handiagoekin aurre egiteko, horma handi eta espedizioak esaterako.

Zure lanbidea izateaz gain, zer eskaintzen dizu pertsona moduan zure jarduerak?

Egun, pertsonalki asko eskaintzen dit. Indarra, energia eta bizipoza emateaz gain, nik uste pertsona hobeagoa eta irekiagoa izan araztea eragiten didala. Egiten dudanak guztiaren gainetik amestea eskaintzen dit, eta guztiz asebetetzen nau. Zorioneko sentitzen naiz egiten dudana eginez, beti pentsatu izan dut mendizaletasuna bizi ikuspegi bat dela, eta bizimodu hori dugunok zorioneko garela.

Hogei urte bederatzigarren graduan. Zer uste duzu aldatu dela urte hauetan zehar goi-mailako kirol eskaladan?

Gauza asko aldatu dira, baina agian ezberdintasun azpimarragarriena goi-mailako bideen kopurua izan daiteke, eta 9a graduko bideak egiteko gai diren eskalatzaile kopurua. Egun, errazagoa da goi-mailara iristea, dagoen zailtasun handiko bideen kopuru eta ezaugarri ezberdinei esker.

Gogoan dut nik nire lehenengo 9a egin nuenean, "*Action directe*" Alemanian 2000 urtean, penintsula guztian 9a mailako proposamen bakar bat zegoela, eta mundu mailan gutxi batzuk. Hau

Iker Baffin irlan, "*The Door*" bidean, 8b. Artikoan librean egin den biderik zaileneko luze klabean · ARGAZKIA: RICKY FELDERER

oztopo bat zen garai hartan maila horretako saiakerak egiteko, eta ondorioz denbora eta ahalegin handia eskatzen zuen. Egun gauzak errazagoak dira, nork esan dezake etxetik gertu ez daukala zailtasun handiko biderik, saiatu ahal izateko? Alde horretatik gauzak asko aldatu dira.

Honetaz gain, garai batean zailtasun handiko bideek orkorrean indar handia eskatzen zuten (indarra zailagoa da hobetzen), eta gaur egun gehiengoek erresistentzian oinarritzen dute bere zailtasuna, heldulekuak hobeagoak dira eta desplome handiagoetan daude kokatuak. Ezaugarri hauetako bideetan eskalatzailearen berezko dohaiek ez dute hainbeste eragiten, hauetan konstantziak eta lanak pisu gehiago izan ohi dute.

Beste aldagai garrantzitsu bat entrenamenduen eta azpiegituren bilakaera izan da. Entrenatzeko metodoen ezagupen eta instalakuntzen hobekuntzek eskalatzaileen maila orokorra asko igotzea eragin du azken urteetan. Egun, bederatzigarren gradua eskalatzaile askok lortu dute, eta aipaturiko aurrerapenek zailtasunaren mugak haratago ezartzea ekarri du, 9b, 9b+, 9c...

Zein ezberdintasun nabarmenduko zenituzke orain dela hogei urteko Ikerren eta oraingoaren artean? Aholkuren bat emango zenioke?

Egun eskalada beste modu batean ikusten dut, baina motibazio berdina edo gehiagorekin...jejeje. Orain biziarekiko beste ikuspegi bat dudala esango nuke, benetan garrantzia zerk duen baloratzen dakidala esango nuke. Gaztea zarenean agian hainbeste garrantzia ez duten gauzei pisu handia eskaini ohi diegu.

Aholku bat eman behar banu, esango nuke bizitzan zehar ahalik eta gehien gozatzeko, behin bakarrik biziko garela eta gaztaroko urteak ziztu bizian pasatzen direla. Egun bakoitza azkena izango balitz bezala bizi behar da!

Oroitzapen bereziren bat merezi dizun bideren bat?

Niretzako bereziena inongo dudarik gabe "*Action directe*" izan zen, ni eta nire ingurukoentzat suposatu zuenagatik. Gaztaroko amets bat egi bihurturik. Nire ibilbideko beste bide berezi bat "Demencia senil" izan zen, nire zailtasun lorpenen mugan aurrerapausu bat eman nuelako. Azkenik, "Artaburu" aipatuko nuke, zalantzarik gabe ireki eta egin dudan zailena eta ikusgarriena delako.

Kontatzea gustatuko litzaizuken oroitzapen, bizipen edo jarduera bat?

Buruan eta bihotzean beti izango dudan bizipen bat Baffin irlara (Canada) lagun talde batekin eginiko espedizioa da 2012 urtean.



lnongo zalantzarik gabe, gure bizietako abentura zirraragarrienetako bat. Bagenekien noiz iritsiko ginen, baina ez handik irtetzerik noiz izango genuen. Ez genekien espedizioak hilabete eta erdi iraungo zituen, edo lau hilabete. Asmoa, esploratzea nahi genuen bailaran elurretako motorrekin sartzea eta izotza urtu arte egotea zen, honela *Inuit*-ek etortzeko aukera izan eta txalupekin handik irteten laguntzeko. Guzti honi hartz zurien konpainia eta egiten zuen hotza gehitu eta bizipen ahaztezina bilakatu zen. Esaterako, eguraldiaren ondorioz 23 egun jarraian dendetatik irten gabe egon behar izan genuen. Aitzitik, hainbat oztopo eta gose pasa arren, lau bide zoragarri irekitzea erdietsi genuen espedizioak iraun zuen bi hilabeteetan.

Zure hastapenetako oroitzapen edo leku bereziren bat?

Leku hori, zalantzarik gabe, Egino da. Bertan hazi eta hezi ginen eskalatzaileak gara, eta bertan oroitzapen oso bereziak ditut. Egun, oraindik ere oso gustoko dut bertara bueltatu eta hango klasiko batzuk egiten saiatzea, eta gainera ziurtatu dezaket ez direla batere samurrak. Hango bide askok, bere garaian bistaz egitea lortu nituenak, harrituta uzten naute duten exigentzia maila eta zailtasunagatik. Beti izango ditut gogoan horma zoragarri hauetara autostopez eta trenez iristen gineneko egun gogoangarri haiek.

Iker "*Nit de bruixes*" bidean Margalefen, 9a+ · ARGAZKIA: ALBERTO LESSMAN

Pou anaiak Patagoniako Cerro Torreko gailurrean, "*Ferrari*" bide mitikotik igo ondoren · ARGAZKIA: POU ANAIAK

Zuretzako berezia den txokoren bat Euekal Herrian? Eta Euskal Herritik kanpo?

Euskal Herrian Larraona eta Egino. Beraien edertasunagatik eta garai batean erreferentzia izan direlako nire ibilbidean. Euskal Herritik kanpo Frankenjura eta Patagonia. Frankenjura bertako basoetan hilabeteetan zehar bizi izan ditudan hainbat pasarte eta bizipenengatik. Patagonia berriz, leku miresgarria delako, natura basatiz josia, eta han ditudan hainbat lagunengatik.

Sasoian egoteko entrenamendu edo egunerokotasun zehatzik jarraitzen duzu?

Entrenamendu zehatzik ez dut jarraitzen. Batzutan ordea, sasoi betean jartzeko haitzeko eskalada hainbat ariketa zehatzekin uztartzen dut, rokodromoan, kanpusean (ariketak egiteko egurrezko listoiak) ...

Hala ere, haitzeko eskalatzailea naiz, mendian eskalatzea gehiegi gustatzen zait leku itxietan asko entrenatzeko. Esan beharra dago aldi berean haitzean eskalatzeko denbora faltarik ez dudala izaten, eta honi esker haitzean bertan entrenatzea posible egiten zait. Haitzean, sasoiaren hobekuntza motelagoa izan ohi da, baina aldi berean askoz gehiago asebetetzen nau.

Honetaz gain, Eneko eta biok buruan izan dezakegunak ere eragina du. Helburuaren arabera prestatzeko modua alda daiteke. Espedizio batetara joateko asmoa badugu, metro asko eskalatzeaz gain, astean hiru edo lau aldiz gutxienez ariketa aerobikoak egiten ditugu (korrika, oinez edo bizikleta). Helburuak ez badu ahalegin aerobiko handia eskatzen, haitzean eskalatzen ordu gehiago egin ohi ditugu.

Nola ikusten duzu zure burua etorkizunean?

Orain arte baino alpinismo gehiago eta kirol eskalada gutxiago eginez, segur aski.

Identifikatuta senti arazten zaituen esaldi edo lemaren bat?

"Benetako nahiak, lorpena dakar". Burua da dudarik gabe dohairik garrantzitsuena, bai kirol honetan, bai beste hainbat kiroletan ere.